

SAKONDU LAGUNTZEN PROGRAMA 2019

ETE-EN NAZIOARTEKOTZEA BULTZATZEKO LAGUNTZA

HELBURUA: Oso nazioartekotuta dauden enpresei presentzia eskasa edo presentziarik ez duten merkatuetan sartzen laguntzea du helburu.

ONURADUNAK:

Izaera soziala edo instalazio produktiboa EAEn duten mikroenpresak eta enpresa txikiak eta ertainak (ETE), beti ere, indarrean dagoen deialdia baino lehenago eratuak:

- Enpresa horien esportazio-jarduerak bere orotarako fakturazioaren %40 gaintitu behar du eta 2018 urtean esportatutako guztirakoaren %10etik beherako fakturazioa duten merkatuetan euren lehia-kokapena hobetu nahi dutenak.
- Onuraduna izan ahal izateko baldintzak diru laguntzaren indarraldi osoan iraun beharko du.

PROIEKTUEN EZAUGARRIAK:

Gastu hautagarriak:

- Laguntza jaso dezakete 2019ko urtarilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean burututako ekintzak.
- Zabaldu programak aholkularitza estrategiko eta operatiborako 15 ordu doan eskaintzen dizkie enpresa onuradunei Basque Trade & Investment-ek edo/eta bere kanpo sareak burutzekoa, 2019 urtean.
- Helmuga herrian, jarduteko jarraian adieraziko diren akzioetatik, gutxienez, 2 mota desberdin egitea sustatzen da:
 - Merkatu azterketak.
 - Jabetza industrialari lotutako gastuak eta homologazioak: patente eta marken erregistroa, batetik, eta homologazioa eta ziurtapena, bestetik.
 - Azokei lotutako gastuak: azoketan parte hartzea, espazioaren alokairua, stand-aren dekorazioa eta azoka bakoitzeko bidaia poltsa bat; biltzarretan, foro espezializatueta eta azoketan parte hartzea bisitari gisa.
 - Bidaiak: Prospekzio bidaliak, merkatuak aztertzeke eta/edo bezero potentzialak diren enpresekin kontaktatzeko eta/edo azokak bisitatzeko eta/edo biltzarretan edo foro espezializatueta parte hartzeke.
 - Sustapen gastuak: hedapen eta sustapen materiala helmuga herrialdera egokitzea, publizitatea, sustapen-ekintzak, harreman publikoak, iraunkortasun txostenak eta sustapenerako edo ikerketarako beste ekintza batzuk.

LAGUNTZEN ZENBATEKOA:

Onartutako gastuaren zenbatekoaren %30raino iritsi daitezke laguntzak, eta gehienez 20.000€ izango dira eskaera bakoitzeko.

Eskatzaileek gehienez bi eskera aurkez ditzakete deialdi honetan, eta hiru hilabeteko tartea egongo da horien artean.

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA:

Bide elektronikoz tramitazioari buruzko xehetasunak, baita eskaerak, erantzukizunpeko adierazpenak eta erabili behar diren gainerako ereduak ere Interneteko www.spri.eus/sakondeu helbidean beteko dira.

Eskaerak aurkezteko epea 2019ko apirilaren 27an hasiko da; eta **2019ko urriaren 31n** bukatuko da, eguerdiko 12:00etan.